

BI ALDIZ ERRENTAGARRIA DEN FINANTZA ERAKUNDEA



Lander Arretxea Bereziartua
@larretxea



Bazkideek sartzen duten diruarekin Hego hemisferioan pobrezia aurre egiteko bokazioa duten proiektuak maileguz laguntzen dituen sozietate kooperatiboa da Oikocredit.



OIKOCREDIT EUSKADI

- **Bazkideak:** 220 Euskal Herrian.
- **Jarduera:** Finantza etikoak.
- **Euskal Herrian egoitza:** Bilbo.
- **Noiztik martxan:** 2004.
- **Bazkide inbertitzaileak:** 53.000 mundu osoan.
- **Laguntza jasotzen duten erakundeak:** 799.

Aspaldi da han eta hemen finantza erakunde erraldoien kontrako iritziak entzun eta errepikatzen ditugula. Direla hipotekak iruzurrak, direla preferenteak, ustelkeria kasuak... Baina hala ere, herritarren gehiengoak bertan gordezten ditugu gure sosak eta aurrezkiak, kasu askotan, zertarako erabiltzen diren jakiteko aukerarik gabe. Badira alternatibak ordea: finantza etikoak esaten zaion lan-esparruan dabiltzan erakundeak. Haietako bat da Oikocredit, bazkideek sartzen duten diruarekin Hego hemisferioko herrialdeetan pobrezia aurre egiteko bokazioa duten proiektuak maileguz laguntzen dituen sozietate kooperatiboa. Nazioarteko organismo zentratean erabakitzen dira maileguen eta inbertsioen gorabeherak, baina mundu osoan ditu jardun hori ahalbidetzen duten 30 elkarte, 13 herrialdeetan. Tartean, Euskal Herrian ere bai: Oikocredit Euskadi.

Gardentasuna, errentagarria izateari utzi gabe

Bertako bazkide izateko, gutxienez 200 euroko inbertsioa egin beharra dago, kooperatibaren kapitalaren erosketaren bidez; eta horrek Oikocredit Euskadiren erabaki guztietan parte-hartzeko aukera ematen dio ekarpena egiten duenari. Sozialki sortzen duen onuraz gain, ekonomikoki ere errentagarria da gainera: urteko asanbladan erabakitako ehunekoak -2% izan ohi da gehitzen baitzaio urtero norberaren inbertsioari. Urtea-

ren amaieran diru hori berreskuratu edo bertan mantendu nahi den erabakitzeak aukera du bazkideak.

Gardentasuna ere bada Oikocrediten bereizgarria, bai behintzat ohiko finantza erakundeekin alderatuz gero. Izan ere, Euskal Herriko taldearen zuzendaria den Jorge Berezoren arabera, bazkideek modu asko dituzte beren diruarekin laguntzen diren proiektuen berri izateko. Biderik errazena webgunean duten datu-basea kontsultatzea da, baina badira gertukoak ere: “Urtean behin gutxienez antolatzen dira lagundu ditugun proiektuak bertatik bertara ezagutzeko bidaia, eta modu berean, haietako batzuetan lanean ari direnek egiten digute bisita”.

Krisiak ez du beherakadarik ekarri

Krisi ekonomikoak ez dio beherakadarik ekarri Oikocrediten jardunari. Hala dio Jorge Berezok: “Urte hauetan nabaritu da jende askok inbertitzeko diru gutxiago izan duela, baina aldi berean, krisiarekin jakinmin handia piztu da finantza etikoaren inguruan”.

Bestelako finantza ereduena ez da bakarka egiten den bidea. Horregatik, Euskal Herrian bertan lan bertsuetan ari diren beste erakundeekin harreman sendoa dute. Fiare, Koop57 eta CAESekin batera, Finantza Alternatiboko Sistemaren Mahaia osatzen dute REAS barruan, eta horrez gain, Fiareko bazkide ere badira. Denak ari dira finantzak beste modu batera kudeatu daitezkeela erakusten duen bidea urratzen. ■